

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Iruñeak Bioetikaren kongresu nazional bat hartuko du datorren ostegunetik aurrera

Nafarroako Gobernuak laguntzen duen kongresua urriaren 6tik 8ra egingo da

Lunes, 03 de octubre de 2011

Osasun kontseilaria Marta Vera Janín-ek aurkeztu du gaur [Bioetikaren X. Kongresu Nazionala](#). Ekitaldia datorren ostegunetik, urriak 6, larunbatera, urriak 8, bitartean egingo da Iruleko Iruña Park hotelean eta Oinarrizko Bioetika eta Bioetika Klinikoaren Elkarteak antolatu du, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Kongresuaren aurkezpenean, kontseilariarekin batera elkarte horretako presidente Koldo Martínezek esku hartu du. Bertan izan dira, halaber, Nafarroako Ospitale Guneko zuzendari-gerente Ignacio Iribarren eta bertako mediku-zuzendari Ruth Vera-k.

Ekitaldian azaldu den moduan, Bioetikaren X. Kongresu Nazionalan Espainia osoko adituak izango dira; etikari buruz ariko dira, eta azken horrek erlijioarekin, erabakiak hartzearekin, osasun-laguntzan dauden arazo berrieekin, etorkizuneko osasun-profesionalekin edo transplante berrieekin lotutako harremanaz. Horretarako, lehen egunean kongresuaren aurreko eztabaida bat egingo da (doako sarrerarekin) erabiltzaileen elkarteekin, eta eztabaida horretan haiek osasun-profesionalei zer eskatzen dieten, horri buruzko gogoeta egingo da.

Lehen topagune honen ondoren, jende guztiarentzat zabalik dagoen ekitaldiari hasiera emango zaio "Aniztasun morala eta demokrazia erabakitzailea" hitzaldiarekin. Adela Cortina, Valentziako Unibertsitatean Filosofia Moral eta Politikoetan katedratikoa, eta Zientzia Moral eta Politikoen Errege Akademiako kidea denak emango du hitzaldi hori. Jardunaldia Iruñeko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsan egingo den bisitarekin amaituko da, autobus-geltokian.

Ostiral eta larunbateko programaren barnean sartzen dira: bost mahai-inguru, komunikazioen aurkezpen eta irakurketa eta hitzaldi onenentzako sari-banaketa. Diego Gracia irakasleak hilaren 8an eskainiko duen "Balioen eraikuntza" izeneko hitzaldiarekin kongresua amaituko da. Gracia, Medikuntzaren Historiako katedratikoa da Madrilgo Complutense Unibertsitatean eta baita Zientzia Moral eta Politikoen Errege Akademiako kidea ere.

Kongresuko laguntzaileak dira ere: Iruñeko Udala, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, La Caixa, Euskadiko Kutxa, Señorío de Otazu, Renfe, Iberia eta El Corte Inglés Bidaiak. Babesleak, berriz: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa, Transplanteen Erakunde Nazionala, CAN eta Banca Cívica.